



**ORIOKO UDALEKO MODERNIZAZIO- ETA BERRIKUNTZA-TEKNIKARIAREN  
LAN-ESKAINZA**

**EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA**

Orioko Udalean aldi baterako programa bat martxan jartzeko modernizazio- eta berrikuntza- teknikari bat kontratatzeko hautaketa-prozesua 2021eko azaroaren 22an hasi zuen Orioko Udalak, oinarriak argitaratuz Orioko Udalaren webgunean eta Lanbideren webgunean.

Deialdi hori hutsik geratu zen inongo hautagairik ez baitzuen eskaintza onartu.

Hori dela eta, Udalak bigarren deialdi bat egin zuen 2022ko urtarrilaren 17an, oinarriak argitaratuz Orioko Udalaren webgunean eta Lanbideren webgunean.

Hautaketa-prozesurako eraturako epaimahai kalifikatzailea honela osatuta dago:

- **Epaimahaiburua:** Jon Carrera Jauregi, Orioko Udaleko idazkari-kontu-hartzailea.
- **Kideak:**
  - Pilar Azurmendi Echegaray, Orioko Udaleko arkitektoa edo hori ordezkatu duen funtzionarioa.
  - Jabier Zabaleta Iraola, Orioko Udaleko euskara- eta hezkuntza-teknikaria.
- **Idazkaria:** Maria Jose Manterola Aragon, Orioko Udaleko administraria.

Hautaketa-prozesua Lanbideren bidez egin da. Hautagitzak jasotzeko epea amaituta, baldintzak bete eta dokumentazioa behar bezala aurkeztu duen hautagai 1 dago, eta epaimahaiak hori baloratu du, 2022ko otsailaren 1ean egindako bilkuran.

Merezimenduak aztertuta (lan-esperientzia eta formazioa), epaimahaiak proposamen hau egiten du. Hau da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda eta merezimenduen behin-behineko kalifikazioa eta lan-eskaintzaren hurrenkera:

ONARTUAK					
NAN-a	C2	Lan esperientzia*	Formazio arautua	Formazio Ez arautua	GUZTIRA
72546163T	BAI	10,4	0	2	12,4

BAZTERTUAK	
NAN -a	BAZTERTZEAREN ARRAZOIA
72460286M	Ez du egiaztagiririk aurkeztu
44332979L	Ez du egiaztagiririk aurkeztu



**ORIOKUDALA**



Interesatuak hiru laneguneko epea dute, zerrenda hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, epaimahaiaren proposamenari erreklamazioak egiteko eta agiri osagarriak aurkezteko. Horretarako azken eguna, beraz, 2022ko otsailaren 4a izango da.

Orio, 2022ko otsailaren 1a

**EPAIMAHAIBURUA**